



ADINEKOEN BATZORDE IRAUNKOR SEKTORIALAREN OSAERA ETA FUNTZIONAMENDUA

1.- Sorrera eta atxikipena.

Gizarte Zerbitzuetako Euskal Kontseiluaren Osoko Bilkuraren erabaki bidez, Adinekoen Batzorde Iraunkor Sektoriala sortu da, eta Kontseilu horri atxikitzen zaio.

2.- Xedea eta eremua.

Adinekoen Batzorde Iraunkor Sektoriala EAEko adinekoekin zerikusia duen edozein jardun-eremutan inplikaturako erakunde publikoek eta gizarte-eragileek parte hartzeko berriazko foro gisa eratu da.

3.- Funtzioak.

Honako funtzio hauek dagozkie Batzordeari:

1.- Adinekoen arloko lege-xedapenei buruzko informazioa ematea, baita lurralde-eremua Euskal Autonomia Erkidegoa duten programa orokor edo sektorialeiei buruzkoa ere.

2.- Euskal Autonomia Erkidegoko adinekoen bizi-kalitatea hobetzeko orientazio estrategikorako eta egin beharreko jardueretarako proposamenak egitea (norberaren autonomiaren sustapena, zahartze aktiboa eta abar).

3.- Adinekoen arloan esku hartzen duten eragileen iradokizunak, informazioa eta proposamenak jasotzea, eta haiei ere ematea.

4.- Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioek adinekoen arloan garatzen dituzten araudi, programa eta jardueren buruzko informazioa biltzea.

5.- Euskal Autonomia Erkidegoko eremuan adinekoen zuzenduta dauden sustapen-politiken inguruko informazioa eta aholkularitza eskaintzea.

6- Adinekoekin zerikusia duten gaiei lotutako azterlanak eta ikerketak sustatzea.

7.- Adinekoekin zerikusia duten gaiei lotuta sortzen diren Lurralde eta Udal Kontseiluekin koordinatzea.

8- Indarrean dagoen araudiak esleitzen dion beste edozein funtzio.



4.- Osoko Bilkuraren osaera.

1.- Adinekoen Batzorde Iraunkor Sektorialaren Osoko Bilkuran, emakumeen kopurua eta gizonena berdina izango da. Nolanahi ere, Osoko Bilkura horretan ordezkaritza izango duten erakundeak honako hauek dira:

a) Jaurlaritza.

b) Foru Aldundiak.

c) Udalak.

d) Adinekoen esparruan diharduten eta dagokien erregistroan inskribatuta dauden gizarte-erakunde adierazgarriak.

e) Adinekoen esparruan diharduten profesionalen erakundeak.

2.- Adinekoen Batzorde Iraunkor Sektorialaren Osoko Bilkurak 24 kide izango ditu guztira; erdiak Herri Administrazioetakoak izango dira, eta beste erdiak d) eta e) idatzizatieta aipatutako erakundeetakoak.

3.- Hona hemen Adinekoen Batzorde Iraunkor Sektorialaren Osoko Bilkura osatzen dutenak:

a) Herri Administrazioen aldetik:

- Lehendakaritza; gizarte-zerbitzuen arloan eskuduna den Saileko pertsona batek beteko du kargua.
- Osasun-arloko Sail eskuduna ordezkatu duen kide bat.
- Hezkuntza-arloko Sail eskuduna ordezkatu duen kide bat.
- Etxebizitza-arloko Sail eskuduna ordezkatu duen kide bat.
- Kultura-arloko Sail eskuduna ordezkatu duen kide bat.
- Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea ordezkatu duen kide bat.
- Foru Aldundi bakoitza ordezkatu duen kide bat.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Udalak ordezkatu dituzten hiru kide.



b) Gizarte-erakundeen aldetik:

- Euskal Autonomia Erkidegoko adinekoen esparruko erakunde adierazgarriak ordezkatzeko dituzten bederatzikide.
- Adinekoen esparruari lotutako Profesionalen hiru Elkargo Ofizial ordezkatzeko dituzten hiru kide.

c) Informazioa edo aholkularitza emateko soilik, landuko den gaiaren inguruko adituak joan ahal izango dira Osoko Bilkurara –unean unean edo modu egonkorrean–, Batzordearen Osoko Bilkurak onartuz gero. Aditu horiek hitza izango dute, baina botorik ez.

5.- Osoko Bilkuraren eskumenak.

Honako funtzio hauek dagozkie Osoko Bilkurari:

- a) Batzordearen epe laburrerako eta luzerako jardun-ildo orokorrak ezartzea.
- b) Lan-batzordeak eratzea (bidezkoztat hartzen bada), eta horien osaera, helburuak, funtzionamendu-arauak eta iraupena ezartzea.
- c) Erregelamendu hau garatzean eta aplikatzean ematen diren jarraibideak eta aginduak onartzea.
- d) Bere erabakien argitalpenari buruz erabakitzea.
- e) Adinekoen Batzorde Iraunkor Sektorialaren jarduerak azalduko dituen Urteko Memoria onartzea, eta gizarte-zerbitzuen arloan eskumena duen Sailari aurkeztea.
- f) Adinekoen Batzorde Iraunkor Sektorialaren funtzionamenduari buruzko Erregelamendua egitea eta aldatzea.
- g) Erregelamendu honen gainerakoak edo, hala badagokio, aplikagarri zaion araudiak esleitzen dion beste edozein funtzio.

6.- Bileretarako deialdia

1.- Adinekoen Batzorde Iraunkor Sektorialaren Osoko Bilkura urtean bitan bilduko da gutxienez, eta Lehendakaritzak egingo ditu ohiko bilkura horietarako deiak. Lehendakaritzak, halaber, ezohiko bilkuretarako deialdiak egin ahal izango ditu, bidezko irizten dionean, edo Batzordearen Osoko Bilkurako kideen herenak hala eskatzen duenean.



2.- Lehendakariak Osoko Bilkurarako egindako deialdia kide guztiei helaraziko zaie, bilera izan baino gutxienez hamabost egun natural lehenago ohiko bilkuren kasuan, edo bost egun lehenago ezohiko bilkuren kasuan. Nolanahi ere, kide guztiak bertan badaude eta aho batez erabakitzen badute, Osoko Bilkura balio osoz eratuta geratuko da, baita deialdia egiteko baldintzak betetzen ez direnean ere.

7.- Osoko Bilkurako kideen izendapena.

Osoko Bilkurako kideak honela izendatuko dira:

1.- Jaurlaritzaren sailtako ordezkari diren kideak sailburu titularrek egingo dituzte, eta sailburuorde edo zuzendari izan beharko dute.

2.- Foru Aldundiak ordezkatu dituzten kideak korporazio bakoitzaren funtzionamendu-arauei jarraiki izendatuko dira, eta zuzendari edo antzeko kargua izan beharko dute.

3.- Euskal Autonomia Erkidegoko Udalak ordezkatu dituzten kideak Euskadiko Udalen Elkarteak (EUDEL) izendatuko ditu.

4.- Herri Administrazioek izendapenak egiteko garaian emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatua izateko ahalegina egin beharko dute, emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeari jarraiki.

5.- Gizarte Ongizateko zuzendariak adinekoen esparruko erakunde adierazgarriak deialdia egingo die, haien artean izenda ditzaten dagozkien kideak.

Deialdia jaso duten erakundeek honako irizpide hauek hartu behar dituzte kontuan kideak izendatzeko garaian:

- Jarduteko eremu geografikoa: sei kidek Autonomia Erkidegoko sei erakunde ordezkatu dituzte, eta beste hiruk, berriz, lurralde-eremuko hiru erakunde, Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurraldeen ordezkariak izendatzeko.
- Erakundearen helburuetan jasotako jardun-eremuaren aniztasuna: ahal dela, adinekoen hainbat jardun-eremutako (emakumeak, mendetasuna, boluntarioria eta abar) erakunde adierazgarrien presentzia bermatuko da.
- Erakundeetako bazkideen eta boluntarioen kopurua.
- Adinekoen esparruko lan-esperientzia.
- Adinekoen esparruari lotutako foroetan edo kontseiluetan izandako parte-hartzea.



- Kideei dagokienez, oreka emakumeen eta gizonen artean, izendapenak egiteko garaian emakumeen eta gizonen presentzia orekatua izateko ahalegina eginez, emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeari jarraiki.

6.- Gizarte Ongizateko zuzendariak profesionalen elkarteei dei egingo die haien artean dagozkien kideak izenda ditzaten. Nolanahi ere, gizarte-eremuko zein osasun-eremuko Profesionalen Elkargoen parte-hartzea ziurtatuko da.

7.- Batzordeko kide guztietatik emakumeen eta gizonen arteko izendapenak orekatuak izatea sustatuko du Gizarte Ongizateko zuzendariak, emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak ezarritakoari jarraiki.

8.- Osoko Bilkurako kideen agintaldia.

1.- Adinekoen Batzorde Iraunkor Sektorialaren Osoko Bilkurako kideen agintaldia 4 urtekoa izango da, eta agintaldiaren amaieran berriz aukeratu ahal izango dituzte. Adierazitako epea igaro ondoren, kideek beren funtzioak betetzen jarraituko dute, ondorengo izendapenak ondorioak izan arte.

2.- Adinekoen Batzorde Iraunkor Sektorialaren Osoko Bilkurako kideen agintaldia honako kasu hauetan amaitu ahal izango da iraunaldia amaitu aurretik:

- a) Kidea izendatu zuen administrazio publikoak, gizarte-erakundeak, sindikatuak, enpresa-erakundeak edo profesionalen erakundeak erabakita agintaldia baliogabetzen edo eteten denean.
- b) Karguagatik izendatutako kideen kasuan, izendatzeko arrazoia izan zen kargua galtzen denean.
- c) Osoko Bilkurako lehendakariari kide izateari uko egiteko asmoa adierazten zaionean.
- d) Heriotza.
- e) Kargu publikoak betetzeko gaitasungabetzea edo funtzio gabetzea dakarren ebazpen judizial edo administratibo irmoa hartzen denean.

3.- Aurreko idatz-zatian aurreikusitako kasuetan, ordezkatu beharreko kidearen agintaldia betetzeko falta den denborarako izango dira ordezkapenak.



9.- Osoko Bilkurako kideen ordezkapena.

Adinekoen Batzorde Iraunkor Sektorialaren Osoko Bilkurako ordezkariak gain, haiek ez daudenean haien funtzioak beteko dituzten ordezkoak izendatu ahal izango dituzte Herri Administrazioek, gizarte-erakundeek eta profesionalen erakundeek.

10.- Osoko Bilkurako kideen eskubideak.

1.- Adinekoen Batzorde Iraunkor Sektorialaren Osoko Bilkurako kideek honako eskubide hauek izango dituzte:

- a) Hitzarekin parte hartzea, botoa emateko eskubideaz baliatzea, osoko bilkuretan edo batzordeen bilkuretan boto partikularra ematea, eta zer bozkatu duten eta zer arrazoirekin adieraztea.
- b) Osoko Bilkuran edo batzordeetan aztertutako gaien buruzko informazioa lortzea, esanbidez eskatzen dutenean.
- c) Osoko Bilkurarako edo batzordeetarako ezohiko deialdia eskatzea.
- d) Gai-zerrendan sartzeko, Osoko Bilkuran edo parte hartzen duten batzordeetan erabakiak hartzeko edo gai jakin bat aztertzeko proposamenak eta iradokizunak aurkeztea.
- e) Osoko Bilkuraren mandatuak joaten diren egintzetan Osoko Bilkura ordezkatzeko; nolahi ere, lehendakariari dagokio ordezkariak esleipen orokorra.
- f) Bilkuretarako deialdiaren eta bilkuren gai-zerrendaren berri izatea organo bakoitzerako ezarritako aurretiaz, eta gai-zerrendan agertzen diren gaien buruzko dokumentuak eta informazioa, eta aurreko bilkurako akta izatea.
- g) Galde-eskeak egitea.
- h) Parte hartzen duten kide anitzeko organoetara joateagatik konpentsazio ekonomikoa jasotzea. Konpentsazio hori bateragarria izango da egiten diren bilkuretan parte hartzeak edo horietara joateak eragin ditzakeen bidaien dagozkien kalte-ordainekin. Konpentsazio horiek zerbitzuen ondoriozko kalte-ordainei buruzko otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuan oro har aurreikusitako kopuruetan eta mugekin jasoko dira.

2.- Dagokion kide anitzeko organoan sartu edo parte hartu beharra herri-administrazioan betetzen den karguak edo lanpostuak eragiten duenean, ez da ezein kasutan diru kopururik jasoko.



3.- Bidaiei dagozkien kalte-ordainak zerbitzuen ondoriozko kalte-ordainei buruzko otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuan oro har aurreikusitako baldintzetan eta mugekin jasoko dira.

11.- Osoko Bilkurako kideen betebeharrak.

Adinekoen Batzorde Iraunkor Sektorialaren Osoko Bilkurako kideek honako betebeharrak izango dituzte:

a) Osoko Bilkuretara edo parte hartzen duten batzordeen bilkuretara joatea.

Urte beraren barruan justifikatu gabe elkarren segidako bi bilerara edo bereizitako hiru bilerara joan ezean, kidea izendatu zuena kargutik kentzea proposatzeko komenigarritasuna aztertuko du nahitaez Osoko Bilkurak.

b) Bidezko isiltasunarekin eta zuzentzearekin jardutea, aztertzen diren gaien izaerak hori eskatzen duenean eta, bereziki, gai horiek ohore-eskubidea, norberaren eta familiaren intimitaterako eskubidea eta norberaren irudirako eskubidea eraginpean hartzen dituztenean.

c) Erregelamendu honen eta, hala badagokio, erregelamendu hau garatzeko onartzen diren jarraibideei eta aginduei jarraiki jardutea.

12.- Lan-batzordeak.

1.- Adinekoen Batzorde Iraunkor Sektorialaren Osoko Bilkuraren erabaki bidez, lan-batzordeak eratu ahal izango dira berriazko tratamendua behar duten arlo jakin batzuetan.

2.- Lan-batzordeen osaera, helburuak, funtzionamendu-arauak eta iraupena Adinekoen Batzorde Iraunkor Sektorialaren eskumenak dira.

3.- Esleitutako funtzioak beteko direla bermatzeko beharrezkoa den egituraz hornituta egongo dira lan-batzordeak.

4.- Eratzen dituen Osoko Bilkuran finkatutako kideak zuzenduko ditu lan-batzordeak.

13.- Adinekoen Batzorde Iraunkor Sektorialaren Lehendakaritza.

1.- Adineko Batzorde Iraunkor Sektorialeko eta Osoko Bilkurako lehendakaria gizarte-zerbitzuen arloan eskuduna den Saileko kidea izango da. Kide horrek Gizarte Ongizateko Euskal Kontseiluaren Osoko Bilkurako eskubide osoko kide izan beharko du, aldi berean.



2.- Adinekoen Batzorde Iraunkor Sektorialeko lehendakariak honako eskumen hauek ditu esleituta:

- a) Adinekoen Batzorde Iraunkor Sektoriala Gizarte Ongizateko Euskal Kontseiluaren Osoko Bilkuran ordezkatzea, eta Osoko Bilkurari Batzordean lantzen diren proposamen, erabaki, txosten eta gainerako gaiei buruzko informazioa helaraztea.
- b) Batzordearen ordezkari izatea.
- c) Batzordearen jardunak zuzentzea.
- d) Osoko Bilkuretarako deialdia egitea eta bilkura horiek zuzentzea, bilkurak behar bezala egiteko jarraibide orokorrak lantzea, eta eztabaidak moderatzea.
- e) Osoko Bilkuren gai-zerrenda egitea, bilkura horiek behar bezala egiteko jarraibide orokorrak lantzea, eta eztabaidak moderatzea.
- f) Bere sinadurarekin bilkuren aktak berrestea, erabakien igorpena eta argitalpena agintzea, eta bete daitezen xedatzea.
- g) Batzordearen izenean erakundeetara, organismoetara, entitateetara, elkarteetara, agintariengana eta partikularrengana jotzea.
- h) Erregelamendu hau betetzea eta betearaztea, eta Osoko Bilkurari interpreta dezan proposatzea zalantzazko kasuetan, eta txerta dezan adierazi gabekoetan.
- i) Erregelamendu honetan ematen zaizkion, lehendakari-karguari datxezkion edo Batzordearen Osoko Bilkurak eskuordetuta bere gain hartzen dituen, eta, oro har, erregelamendu honek beste organo batzuei esleitzen ez dizkien funtzio guztiak.

14.- Adinekoen Batzorde Iraunkor Sektorialaren Lehendakariordetza.

1.- Erakunde sozialetako ordezkarien artetik hautatutako kide bat izango da Batzordearen Osoko Bilkurako lehendakariordea.

2.- Lehendakaria gaixorik edo kanpoan dagoenean, edo lehendakaririk ez dagoenean, lehendakariordeak ordezkatu du eginkizun guztietan.

15.- Adinekoen Batzorde Iraunkor Sektorialaren Idazkaritza.

1.- Adinekoen Batzorde Iraunkor Sektorialeko idazkaria gizarte-zerbitzuen arloan eskuduna den Sailari atxikita dagoen kide bat izango da, eta arlo horretan eskuduna den Saileko titularrak izendatuko du.



2.- Adinekoen Batzorde Iraunkor Sektorialaren Osoko Bilkurako idazkariak honako eskumen hauek ditu esleituta:

- a) Batzordearen osoko bilkuretara joatea, hitzarekin baina botorik gabe.
- b) Lehendakariak aginduta, bilkuretarako deialdia egitea.
- c) Gai-zerrendan sartutako gaiei buruzko dokumentu guztiak Batzordeko kideen eskura jartzea.
- d) Osoko bilkuretara joatea eta horien aktak egitea, eta hartzen diren erabakiak bideratzea.
- e) Kideek zein hirugarren batzuek Adinekoen Batzorde Iraunkor Sektorialari aurkeztu nahi dizkioten gai, txosten, proposamen edo dokumentu guztiak biltzea, antolatzea eta prestatzea, eta guztiak bidezkoa den eran bideratzea.
- f) Batzordeak sortzen duen edo eskuragarri duen informazioa dagokien pertsoneri edo erakundeei helaraztea.
- g) Fede-emaile gisa jardutea, Osoko Bilkuraren aktak eta hartutako erabakiak lehendakariaren oniritziarekin egiaztatzea, eta, hala badagokio, egiaztapena dagokion aktaren onarpenaren aurrekoa dela esanbidez jasoaraztea.
- h) Espedienteak, bere kargura dagoen artxiboa eta dokumentuen sarrerako eta irteerako erregistroa antolatzea eta zaintzea, eta organoen eta kideen eskura jartzea, hori eskatzen zaionean.
- i) Batzordearen jarduerak azaltzen dituen urteko memoria lantzeko bidezko datu guztiak ematea.
- j) Lehendakariak agintzen dizkion edo bere karguari datxezkion kudeaketako eta koordinazioko egintza guztiak.

16.- Adinekoen Batzorde Iraunkor Sektorialaren finantzaketa.

1.- Adinekoen Batzorde Iraunkor Sektorialak bere funtzioak behar bezala betetzeko beharrezkoak diren giza baliabideak eta bestelako baliabideak izango ditu.

2.- Finantzaketa gizarte-zerbitzuen arloan eskuduna den Sailaren aurrekontuen kontura egingo da.